

ARRATSALDEKO JARDUERAK 2019

Eski jardueraren osagarri, astelehen, astearte, asteazken eta ostegun arratsaldeetarako kanpainatik hainbat jarduera eskaintzen dira.

Aurtengo kanpainan, asteko partehartzaile kopurua handia denez, astelehen, astearte eta asteazkenetarako lau proposamen desberdin eskaintzen dira eta ikastetxeak haietako hirutan parte hartu ahal izateko txandakatuko dira. Ostegunetan lehenik garbiketa ekintza burutuko da herria garbi eta txukun uzteko helburuz, eta ondoren xeia ospatuko da, kanpainako parte hartzaile guztiek elkarrekin ekintzaz gozatu ahal izateko.

Astelehenetik asteazkenera **LUDOTEKA** Zerbitzua eskuragarri egonen da, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara, **Izabako Udaletxeko lehen solairuan**. Bertan mahai-jolas desberdinetara jolasteko aukera izanen dute, esku-lan desberdinak egin ahal izanen dituzte eta kirol-material desberdina maileguan hartzeko aukera izanen dute (baloiak, erraketak, palak, ...).

Ezinbestekoa da arratsaldeko jarduera guztietan gutxienez irakasle batek taldea laguntzea eta, igerilekuko jardueran gizonezko irakasle bat eta emakumezko irakasle bat aldageletako uneetan bertan egotea.

ASTELEHEN, ASTEARTE ETA ASTEAZKENA

IGERILEKUKO JARDUERA ETA KOREOGRAFIA JARDUERA

Bi jarduera hauek Izabako Angel Galé igerilekuko eraikinean egingen dira. Taldea bitan banatuko da eta bi jarduerak egiteko txandakatuko dira, igerilekuko jarduera batetik eta koreografiako jarduera bestetik.

Igerilekuko jarduera

Ordutegia: 17:45 – 19:00 eta 19:00 – 20:15

Beharrezko materiala: txanoa, txinalak, eskuoihala eta bainujantzia.

Jarduera honen iraupena gutxi gora behera ordu eta laurdenekoa izanen da, hiru ordu laurden uretan eta ordu laurden jarderaren aurretik eta ondoren aldageletan. Garrantzitsua litzateke jarduera honetan bi irakasle egotea, bata gizonezkoa eta bestea emakumezkoa, aldageletan sartu ahal izateko eta bertan denbora ahal den murriztena izateko. Igerilekuan jolas desberdinak burutuko dira, ingurune urtarrak eskaintzen dituen aukera desberdinak gozatu ahal izateko.

Ezinbestekoa da ikasleek igeri egiten jakitea, igerilekuan ez baitute zorua ukituko. Igerian ez dakien edo ekintzan parte hartu nahi ez duen edo ezin duen ikasleren bat egonen balitz, koreografia jardueran bitan parte hartzeko aukera emanen zaio. Nahi izango ez balu irakasleen ardurapean geratuko da.

Koreografia jarduera

Ordutegia: 18:00 – 19:00 eta 19:00 – 20:00

Ordu beteko iraupena izanen du gutxi gora behera. Bi begiraleen laguntzaz koreografia pare bat prestatuko dituzte osteguneko xeian guztiek elkarrekin dantzatu ahal izateko.

ZINEMAKO JARDUERA

Ordutegia: 17:45 – 19:30

Jarduera hau Izabako Zineman egingen da eta Erronkari Ibarako hainbat pertsonari egindako elkarrizketak oinarritzat hartzen dituen Labrit Multimediak prestatutako dokumental bat eta Iñaki de Miguel-ek horren inguruan egiten duen antzezpena uztartuko ditu. Aurten, argi-kutsadurari eta gure gaueko zeruaren edertasunaz gozatu ahal izateko iluntasunak duen garrantziari buruzko sail berri bat egonen da.

Begirale batek taldea 17:45etan Izaba Hotelean jasoko du eta Izabako Zinemara lagunduko du.

Jarduera honen helburu nagusiak Erronkari Ibarreko historia- eta kultura-ondarea ezagutzea eta baloreetan oinarritutako hezkuntza izanen dira (berdintasuna, elkartasuna,...):

- Sexuen berdintasunean hezte
- Emakumeenganako errespetuan hezte
- Pertsona bakoitzak gizartean duen lekua bere neurrian balioan jartzea
- Pirinioko biztanleentzat mendi hauek banaketa muga baino topagunea direla erakustea
- Hitzaren balioa, hitza betetzea eta arma bakar bezala hitzaren erabilera erakustea
- Julian Gayarre tenorearen nekaezintasun eta eskuzabaltasun baloreak azpimarratzea
- Elkarbanatzearen eta laguntzearen garrantzia balioan jartzea eta askoz gutxiagorekin ere zoriontsu izatea posible dela erakustea
- Argi kutsaduraren eragina ezagutzea, eta Erronkaribarrak eskaintzen duen iluntasun giroan gaueko zeruaren edertasuna balioan jartzea

Dokumentalak bost atal izanen ditu eta jarraian atal bakoitzaren edukia labur azalduko dugu:

1.-SEXUEN BERDINTASUNA – EMAKUMEENGANAKO ERRESPETUA: Erronkariarekin lotzen diren ondare-elementuen artean artzaintza-trashumantzia eta almadiak ditugu. Erronkariko gazta eta egurraren garraioa ibaietan zehar elementu bereziki ezagunak dira eta beti gizon horien balioa azpimarratu da. Hala ere, hori guztia, erronkariar emakumeek gizarte hartan betetzen zuten oinarritzko papera kontuan izan gabe, ez litzateke posible izanen. Emakume haiek, urteko egun gehienak bakarrik ematen zituzten, ume txikiak zaintzen, adineko pertsonak zaintzen, etxea zaintzen, aziendak zaintzen, baratza zaintzen, soroak zaintzen, ... Eta beti izan dira ikustezin, beti egon dira udal gobernuaren arduetatik urrun eta askotan gizonezkoen erabakien biktima.

2.-HITZAREN BALIOA: Hiru Behien Zerga. Europak duen ondare-althor baliotsuen artean dugu eta urtero, uztailearen 13an San Martin Harriari gautzatzen da. Baretous ibarreko herriek erronkaribarko Izaba, Uztarrotze, Urzainki eta Garde herriei hiru behien zerga ordaintzen diete, behi hauek ez

dute orbainik izan behar eta adardura, ilaje eta hortzeria berdina izan behar dute. Dirudienez, I edo II (Ko) mendetik dator ohitura hau. Bakea eskuekin eta emandako hitzarekin sinatzen da: PAX AVANT.

3.-IRAUNKORTASUNA eta ESKUZABALTASUNA: Ibar honetatik pertsonaia garrantzitsu ugari atera da eta horietako bat, Erronkariko herriari zein ibarrari proiektio unibertsala eman diona, Julián Gayarre dugu. XIX. mendeko bigarren erdian ospea lortu zue munduko tenore onena bezala. Errege-erregin, gobernuko lehendakari, tsar eta munduko erakunde desberdinek saritu, golardatu eta aintzatetsi zuten. Hala ere, bere ahotsa ez zen bere ezohiko gaitasun bakarra; gizatasun handiko pertsona izan zen Gayarre. Bere ahotsari esker aberastasun handia lortu zuen, baina diru hori ez zuen erabili bere burua dirutzeko, beharrak zituzten pertsonak eta gutxietsiak ziren pertsonak laguntzeko baizik (eskolak eta frontoiak finantziatu zituen, suteek edo lurrikarek suntsitutako herriak berreraikitzen lagundu zuen, ahalbide ekonomikorik ez zuten ume ugari ikasketak ordaindu zizkien, ...).

4.- SOILTASUNA ETA LAGUNTASUNA: Erronkariko landa gizartearen eguneroko bizitzara hurbilduko gara ibar honetan bizi izan diren pertsona desberdinen testigantzen bidez. Pertsona hauek, gehienetan, orain ezinbestekoak iruditzen zaizkigun tresna horietako askorik gabe bizi izan dira (telebista, mugikorra, internet, gps-a, tablet-a, kotxea, baita argia ere). Pertsona hauek, gure aiton-amonek hain zuzen ere, haien arropak eta oinetakoak josten zituzten, haien jostailuak egiten zituzten, telebista aurrean eseri beharrean hitz egiten eta entzuten zuten, gosea zer zen eta, haien eskuekin, makinarik gabe, egunsentitik ilunsentira arte lan egin egitea zer zen jakin zuten; lanik eta esfortzurik gabe ezer ez zegoela ulertu zuten.

5.- ARGI KUTSADURARIK GABEKO ILUNTASUNA: gure ibarrean, argi kutsadura gutxi dagoen eremuetan ateratako argazki desberdinen emanaldiak, gaueko zeruaren edertasunera hurbilduko gaitu.

NATUR INTERPRETAZIO ZENTROKO JARDUERA eta JULIAN GAYARRE MUSEOKO JARDUERA

Ordutegia: 18:30 – 19:30 eta 19:30 – 20:30

Bi jarduera hauek Erronkarin burutuko dira, bata Natur Interpretazio Zentroan eta bestea Julián Gayarre Museoa. Erronkarira autobusa iristean partehartzaile guztiak bitan banatuko dira. Bi taldeek bi ekintzak egingo dituzte, lehenik bat eta gero bestea. Uneoro Julián Gayarre Museoko jarduerako begiraleek partehartzaileak leku batetik bestera lagunduko dituzte. Guztira, Erronkariko ekintzak bi ordutako iraupena izanen du.

Natur Interpretazio Zentroko jarduera

NIZ-era iristean, taldea bigarren solairura igoko da, argi-kutsadurarekin lotutako ikusentzunezko bat ikusiko du (*Argiak gauean – Iluntasunaren galera*), eta labor azalduko zaio 2018ko urtarrilaren 18an, Erronkaribarko Batzorde Orokorrek Starlight Fundazioak ematen duen eta izarrak ikusteko toki aproposak saritzen dituen, “Starlight Turismo-Helburua” Ziurtagiria jaso zuela. Mugaren bi aldeetako “Pirineos La Nuit” proiektuak ekosistema desberdinen kalitatea hobetzeko helburua du, Pirinioetako gaueko iluntasunaren babesa eta hobekuntza bultzatuz, argi-kutsaduraren handitzeak balio horren galera bait dakar. Gainera, natur-balio hori funtsezkoa da biodibertsitatean, ekosistemen kalitatean eta pertsonen

osasunean, beraz, proiektu honen helburu orokorra, Pirinioko berezko iluntasunaren hobekuntza da, ekosistemen eta biodibertsitatearen kalitatezko faktore delako.

Jarraian, *Gure gaueko zeruaren aberastasuna* izeneko power-point baten bidez, begi bistaz gaueko zeruan ikus ditzakegun elementuak birpasatuko ditugu.

Ondoren, talde bitan banatuko da eta talde bakoitza Interpretazio Zentroko solairu desberdin batean kokatuko da. Talde bakoitza talde txikiagotan banatu eta talde bakoitzari kutxa bana emango zaio. Froga desberdinak egin beharko dituzte kutxa txikiago baten giltzarrapoa zabalduko duen zenbaki-kode bat lortzeko. Kutxa txiki horretan froga arrakastaz bukatzeko beharrezkoa izanen duten pista topatuko dute. Froga denboraz amaitzen duen ikastetxea, Iruñeako Planetarioan bixita berezi batean parte hartzeko zozketan parte hartu ahal izanen du.

Julián Gayarre Museoko jarduera

Museoko tokia mugatua denez, bertako arauak aipatu ondoren talde handia hiru talde txikitan banatuko da eta talde bakoitzak hiru egintza horiek burutuko ditu beti begirale beraren laguntzaz.

LEHEN JARDUERA: eguraldia ona bada kalean burutuko da. Taldea bi taldetan banatuko da eta talde bakoitzari pista-joko bat banatuko zaio. Talde batek ibilbide laranja egingen du eta beste taldeak ibilbide berdea. Talde bakoitzak bere ibilbidea jarraituko du (museoan hasi eta bukatuko da) eta pistak jarraituz Julián Gayarre-rekin lotutako hitz bat topatuko du. Bukaeran, aurkitutako informazioa elkarbanatuko da.

Euria egingo balu eta kaleak elurra edo izotzagatik gaizki egingen balira, bigarren solairuko jarduera egingen litzateke: aintzinean, Erronkariko etxeetan erabiltzen ziren hainbat tresnen izena eta erabilera asmatu beharko dute.

BIGAREN JARDUERA: museoko beheko solairuan egingen da. Taldea lau talde txikitan banatuko da eta bakoitzari beira-arasa desberdinetan aurki daitezkeen objektu batzuen argazkiak emango zaizkio. Egokitutako beira-arsan objektu horiek topatzea izanen da helburua eta horiek Gayarre-rekin duten lotura asmatzea. Bukaeran guztien artean, modu laburrean, Gayarre-ren biografia osatzen saiatuko dira.

HIRUGARREN JARDUERA: museoko lehen solairuan egingen da. Denbora emanen zaie Gayarrek antzeztutako operetan erabili zituen jantziak ikusteko eta talde txikitan hirugarren solairura igoko dira bere logela eta beste hainbat gauza interesgarri ikusteko. Azkenik, opera zer den, ahots mota desberdinak zeintzuk diren eta Gayararren inguruko bitxikeriaren bat aipatuko dira.

HERRI KIROLAK

Ordutegia: 18:00 – 19:30

Jarduera hau Iزابako frontoi estalian burutuko da eta lau begirale arduradun egonen dira bertan.

Jardueraren azalpena eman ondoren, taldea hamar talde txikitan banatuko da eta talde hauek haien artean lehiatuko dute herri-kirol froga desberdinetan parte hartuz. Txanda bakoitzean bost taldek lehiatuko dute eta txanda bakoitzean froga guztiak denbora laburrenean egin dituen bi taldeak hautatuko dira. Behin txanda bakoitzeko bi talde irabazle hautatu direla, lau horiek berriro haien artean lehiatuko dute talde irabazlea zein den ikusteko. Frogak honako hauek izanen dira: lokotx

biltzea, harri-jasotzea, txinga eramatea, zaku-lasterketa, lasto botatzea, ingude altxatzea eta giza-probak. Bukaeran soka-tira txandak egingen dira.

OSTEGUNA

HERRIAREN GARBIKETA

Ordutegia: Erronkariko xeira joateko autobusa hartu baino lehen

Ostatu bakoitzean zabor poltsak, eskularruak eta talde bakoitzak garbitu beharreko eremua zehazten duten mapak eskuragarri egonen dira. Asolazen, Urzainkin eta Garden ez dago maparik, beraz, ostatuaren inguruak garbitu beharko dira.

XEIA

Ordutegia: 18:00 – 20:00

Xeia Erronkarin izanen da eta bi ordu horietan astia izanen dugu dantzatzeko, ongi pasatzeko, astean zehar ateratako argazkiak ikusteko, argazki dibertigarriak ateratzeko eta diplomak jasotzeko.

Guztiok Erronkarira joan ahal izateko, joan-etorriko bidaiak bi txandatan antolatu behar dira (eskiatzera joateko eginak dauden txandak probestuko ditugu). Beraz, lehen txandan eskiatzen duen taldea, Erronkarira xeia hasi baino ordu erdi lehenago iritsiko da, eta Izabara itzultzeko 20:00etan abiatuko da. Bigarren txandan eskiatzen duen taldea, aldiz, Erronkarira 18:00etan iritsiko da, xeia hasten den momentuan, baina itzulerako autobusa xeia bukatu eta ordu erdi beranduago hartuko du.